

Berezko abortuak iragartzen, VI. Tesi Saria

Kortabitarte Egiguren, Irati

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Basque Research web guneak Tesi Saria antolatzen du urtero, euskal unibertsitateetako ikertzaileen lanak gizarteratzeko. Seigarren edizioa izan da aurtengoa, eta Estibaliz Alegre Martinez biokimikariak jaso du lehenengo saria.

ESTIBALIZ ALEGRE MARTÍNEZ NAFARROAKO UNIBERTSITATEKO BIOKIMIKARIA DA, eta berezko abortuak ikertu ditu doktorego-tesian. Zehazki, berezko abortua izateko arriskua identifikatzen lagun dezakeen proba bat aurkitzen saiatu da. *La molécula HLA-G como marcador de aborto espontáneo* (HLA-G molekula, berezko abortuaren markatzaile) lanak jaso du, hain zuzen ere, lehenengo saria.

Laburpena irakurterraza eta ulergarria izateaz gain, gaia ondo kokatzen du ikertzaileak. Hasieratik ikerketaren muinera doa, eta horixe izan da epai-mahaiak lan honi lehenengo saria emateko eman duen arrazoietakoa bat. Laburpen honengatik, ordenagailu eramangarri bat eta EAEko landetxe batean asteburu bateko egonaldia irabazi ditu ikertzaileak, Sistek Infor-



Estibaliz Alegre eta Carolina Cebrián.

matica y microsistemas etxearen eta Nekatur elkartearen laguntzari esker.

Haurdunaldien % 15ean, gutxi gorabehera, berezko abortua gertatzen da lehen hiruhilekoan. Kasu askotan, umeak babesten duten mekanismoetan arazoren bat gertatzen delako izaten da. Zenbait babes-mekanismo haurdunaldian nola garatzen diren aztertzea izan du lan honek helburu, eta horietakoren bat berezko abortuak iragartzeko markatzaile gisa erabil daitekeen ikustea.

Emaitzarik aipagarrienetarikoak HLA-G molekularen ingurukoak dira. Izan ere, ikertzaile arabarrak ikusi du enbrioak ekoizten duen molekula horren maila handitu egiten dela haurdunaldiaren hasierako asteetan. Baina soilik haurdunaldiarekin aurrera jarraitzen duten emakumeetan gertatzen da hori, eta ez berezko abortua izateko arriskua duten emakumeetan. Alegren ustez, molekula hori erabilgarria izan liteke berezko abortuen markatzaile gisa.

Axoietatik parkinsoneraino

Carolina Cebrián izan da bigarren sailkatua, Nafarroako Unibertsitatean aurkeztutako tesiaren laburpenari esker. Ikertzaileak *Implicaciones en la ramificación axónica en el Parkinson* (Axoien adarkatzeak parkinsonean dituen ondorioak) izenburudun laburpena aurkeztu du, eta argazki-kamera digital bat eta asteburu bateko egonaldia irabazi ditu, Eroskiri eta Nekaturri esker. Laburpen honen inguruan epaimahaiak nabarmendu du ulergarria eta atsegina dela irakurketa. Hala ere, sarrera tesia- ren muinarekiko orokorregia edo urru- nekoa jo du.

Aurrez egindako ikerketen arabera, neuronon axoiak (satsak) garuneko gun- e bakarrera heltzen dira. Cebrián-ek, aldiz, honako hipotesi hau proposatu du: neuronon axoiak adarkatu egin daitezke eta, hala, gai dira aldi berean hainbat guneren jarduera moldatzeko. Horrek azalduko lituzke orain arte azalpenik ez duten parkinsonaren ondorioetako bat- zuk. Gainera, badirudi axoirik adarka- tuenak dituzten neuronei egiten zaiela kalte gehien parkinsonean.

Euskarazko laburpen onena

Garuna erabat baztertu gabe, baina osasun-gaiak alde batera utzita, garunaren eta hizkuntzaren arteko elkarre- kintzan murgiltzen da aurtengo azken saria, aipamen berezia.

Adam Zawiszewski hizkuntzalariaren *Garunaren alderdi ezkuak deskubri- tzen: kasua eta komuntadura neuroi- rudietan* lanak jaso du euskarazko aipamen berezia. MP4 bat eta EAEko



Haurdunaldiarekin aurrera jarraitzen duten emakumeetan, HLA-G molekularen maila handitu egiten da haurdunaldiaren hasierako asteetan.

“laburpena irakurterraza eta ulergarria izateaz gain, gaia ondo kokatzen du irabazleak”

landetxe batean asteburu bateko ego- naldia irabazi ditu, Eroski kooperatiba elkartearen eta Nekatur elkartearen eskutik. Kasu honetan, testuaren zu- zentasuna eta adibideen erabilera argi- garrria nabarmendu du epaimahaiak, nahiz eta terminologia zenbaitetan azalpenik gabe ere agertzen den tes- tuan.

Euskara eta, oro har, edozein hizkuntza prozesatzen dugunean gure garunean zer gertatzen den izan du aztergai tesi horrek. Hain zuzen ere, hitzun bati esti- mulu jakin bat emanez gero tentsio- aldaketa ikus daiteke garunean. Alda- keta hori uhin baten bidez irudikatzen da, eta uhin hori noiz eragin den eta nolakoa den jakin daiteke.

Egindako esperimientuetan lortutako emaitzen arabera, “Liburua irakurri du neska” perpausean, esaterako, jaiotze- tiko hitzunak berehala jabetzen dira perpaus horren gramatika-akatsaz; hizkuntza hiru urterekin ikasi dutenen kasuan, ordea, garunak ez ditu akats horiek sumatzen. “Nik zu bakarrik ikusi dut” motako akatsak dituzten perpaus- etan, berriz, antzeko erantzun elek- trofisiologikoa ikus daiteke hitzun-talde bien artean. Beraz, hitzuna hizkuntza batez zer adinetan jabetu den, akats- mota batzuk edo beste batzuk suma- tzen ditu garunak.

VI. Tesi Sarian 38 lan jaso dituzte. Sa- ritutako lanak eta parte hartu duten gainerakoak Basque Research web gunean daude ikusgai.

www.basqueresearch.com

Hitzuna hizkuntza batez zer adinetan jabetu den, ezberdin prozesatzen du garunak.

